**LAB, STEILAS ETA ELA SINDIKATUEK BERANDU BAINO LEHEN MAHAI NEGOZIATZAILEA DEITZEKO ESKATZEN DIOGU HAURRESKOLAK PARTZUERGOARI**

Covid-19ren osasun-krisia hasi zenetik, Haurreskolak Partzuergoan ordezkaritza dugun LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok ahalegin asko egin ditugu egoera honi aurre egiteko, itzulera adostua negoziatzeko, alegia, baliabide material zein giza baliabideak eskatuz. Hala ere, Haurreskolak Partzuergoko gerentziak ez dio biderik eman egindako eskaera guztiei.

Haurreskolak Partzuergoak eta Hezkuntza Sailak egindako pandemiaren kudeaketan inprobisazioa izan da nagusi, eta langile eta haurren osasunaren gainetik beste interes konkretu batzuk lehenetsi ditu. Matrikulazio aldia eta kontingentzia planak haurreskolak presaka irekitzeko prestatu behar izan ziren eta erabakiak egun batetik bestera aldatzen ziren, langile eta familiengan ezinegona eta mesfidantza eraginez. Eta hori guztia, langileen ordezkariok horri buruz genuen iritzia eta ekarpenak kontuan hartu gabe.

Ikasturte berriaren hasiera zaila izango zela ikusita, eta Haurreskolak Partzuergoarekin ikasturte hasiera horren inguruan negoziatzeko eskaera hainbat aldiz egin eta gero, uztaila hasieran eta amaieran sindikatuekin esertzera behartu genuen enpresa, ikasturte honetarako planteamenduari buruzko informazioa eskatzeko eta ekarpenak egiteko asmo argiarekin.

Bilera horietan, Haurreskolak Partzuergoaren gerentziak argi adierazi zuen iraileko agertokia “normaltasunaren” agertokia izango zela, eta horren baitan pertsonalean edo materialean inbertsio gehigarririk ez egiteko asmoa argia azaldu zuen, horrekin batera zentroen artean langile-mugimenduak egiteko zuen asmo argiaren berri eman zigun.

Ikasturtea hasi da, eta uztailean gerenteak esan zuen bezala, enpresak ez du baliabide gehigarri bakar bat ere jarri: ez kontingentzia-plana erantzuteko baliabide pertsonalik, ez haurreskola bakoitzaren egoera ekonomiko latzari erantzuteko baliabide ekonomiko gehigarririk; Hau guztia gutxi izango balitz, desinfekzio-materialak erosten jarraitu behar dugu ez dugun diruarekin. Hezitzaile asko egunero desplazatzen ari dira haurreskola batetik bestera inolako irizpiderik gabe, osasun irizpideak kontuan hartu gabe, pedagogikoki beti defenditu dugun “egokitzapen aldia” ikasturteko oinarria dela. Gainera kontratazio berria blokeatuta dago, matrikulazio gutxiago daukagula aitzakia hartua.

Sailburu aldaketa egon da Hezkuntza Sailean. Sindikatuetatik asmo adierazpenetatik haratago, zehaztasun eta baliabide aurreikuspen eta bermeak nahi ditugu. Horrez gain, espero dugu gure 0-3 zikloak hezkuntza-sistema osoan duen garrantzia ulertzeko gai izatea eta, behingoz, Haurreskolak Partzuergoa Hezkuntza Sailean integratzeko urratsak emateko gai izatea.

Beraz, Haurreskolak Partzuergoari, lan baldintza seguruak eta kalitateko zerbitzua bermatzeko, **haurreskolaz haurreskola eta Eibarko egoitzan dauden beharren azterketa egitea eta horri aurre egiteko behar bezalako langile eta baliabideen hornikuntza egitea eskatzen diogu:**

- Kontingentzia Planak behar bezala bete ahal izateko lan baldintza egokiak: behar besteko prestakuntza, Covid arduradunak haurrik gabeko denbora izatea, talde txikiak eta talde itxiak bermatzeko hezitzaileen kontratazio berriak. ..

- Irizpide Pedagogikoak kontuan hartuko dituen behar bezalako Hezkuntza Zerbitzua eskaintzea. Egun batetik bestera antolakuntza aldaketak egitera behartu gabe hezitzaile faltagatik.

- EPIak eta haurreskoletako funtzionamendurako beharrezkoa den aparteko hornikuntza ekonomikoa egitea.

- Hezitzaileen egonkortasuna bermatzea.

- Kontingentzia Planetik eta aukera berdintasuna bermatzeko asmoarekin, 2. agertokitik ezarrita dagoen aforoaren muga kentzea.

- Hezkuntza Saileko ordezkaria Haurreskolak Partzuergoko mahai negoziatzaile guztietara etortzea.

**Gauzak horrela, goian sinatzen dugun sindikatuok ahalik eta lasterren mahai negoziatzailea deitzea eskatzen diogu Haurreskolak Partzuergoari, bileran Hezkuntza Saileko ordezkaria egotea eskatzen diogularik.**

Euskal Herrian, 2020ko irailaren 24an.